



Ekimen Ibiltaria Zamudioko teknologia parkera iritsi da gaur, Eusko Jaurlaritzaren politiken "adierazgarri argia" den enpresagunera. Hitza hartu dugu Ide enpresaren aurrean, eta multinazionalen jokabidea gogor salatu dugu: "Soldatak izozten dizkigute, Estatuko hitzarmenak aplikatu, lana eta bizitza uztartzea ezinezkoa egiten dituzten ordutegiak ezarri, malgutasuna inposatu, eta, bitartean, irabaziak metatzen dituzte egunegun"; nabarmendu dugu.

Eusko Jaurlaritzak ardura handia duela salatu dugu, "txeke zuria eskaintzen dielako patronalari eta enpresei, inongo eskakizun sozialik egin gabe"; enpresak erosten dituzten atzerriko taldeei ere ez. "Gero eta gehiago estutzen gaituzten enpresen esku utzi gaitu Jaurlaritzak"; berretsi dugu.



Zamudiora iritsi aurretik, Lezaman izan gara "Lan duina, bizi duina" Ekimen Ibiltariarekin, ekintza sindikaleko tailer bat egin baitugu bertan. Bihar, berriz, Zallan izango gara, 10:00etatik 13:30ak bitartean, Madres Irlandesas plazan. Enkarterrin bizi eta lan egiteko eskubidea aldarrikatuko dugu.

—